

eskutitzak



bizkaia@egunkaria.com



Egia Jenerala, 3-behea 48010 Bilbo

Jakin-minez edo

Arama Markina • BILBO

Jakin-nahiz edo, Iturriak bere *Historia General de Vizcaya* delakoan, 1885eko edizinokoa, Liboko Arrieta atalean dakarren hurrengo irakurri deustat: *Dominus est petra mea, scutum et robur: plectabor cornu salutis meae* esaldia dakarrela bertoko eskutak.

Berbok Bibliako (Samuel II, 22, 2 eta Salmoak 18, 3) dirala jakin neban, eta Duvoisin kapitainak jarraiko ordain hau emoten deustela: «Jauna da ene habea eta ihes-lekhua, ene falbatzailea. Ene Jainkoa da ene laguntza, haren baithan izanen du igurikitza. Hura da ene geriza, ene falbamenduko adarra eta ene habea».

Jakin-minez edo, bertoko abade, alkate, sekretario eta antzekoei itaundu neutsen ea horren barririk daukien, baina ez deust inork eskuta eta esaldi horren barririk emon.

Ba daukazu honi buruzko barririk. Ba daki inork zer edo zer?

Adeitasunez.

Alkatea, hau da hau lotsea!

Santurtziko EAJ • SANTURTZI

Santurtziko Eusko Alderdi Jeltzaletik Begoñako Gure Ama egoitzako 27 plazak beteteko eratutako aukeraketa prozesuan gertatu dan guztiagaitik sentitzen dogun lotsea agertu gura dogu.

Eretxi publikoari eta, bereziki, Santurtziko auzokideei jakinarazo gura deustiegu gertatu dan guztiaren ardurea gobernu taldean dagozan PPrena eta PSOEna dala. Betiko moduan euren txilindroia pasau dabe danon ganetik eta EAJk proposatu zituan oinarriei kasurik egin barik eurenak atera zituen aurrera. Gehiago esan behar dogu EAJ, Santurtziko Udaleko bigarren indarra,

OHARRA: Ahalik eta eritxi gehienek tokia izan daien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun honeetan. Idatzi dauanaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, zuzendaritzak bere esku dau horretarako eskubidea. Erdaraz ailegetan diran gutunak ez dira argitaratuko.

aukeraketea egin eban epaimahaiko kide izateko be ez eben gonbidatu.

PSOE eta PPK lanpostu publikoak beteteko dagozan deialdi guztiak kontrolau beharra erakusten dabe eta beste indar politikoei horreetan parte hartzea eragozten deustie. Holango jarrerakaz Osakidetza kasuaren modukoak jator-kuz gogora.

Adierazotako guztiagaitik PPko zinegotziaren, Urdiales jaunaren, dimisinoa eskatzen dogu, bera izan zalako azterketa horren 'antolatzailea', eta oposaketa egin ebenen gaitasuna zalantzan ipini ebalako. Horreekaz berbokaz Urdiales jaunak lan bila azterketa egin eben eta antolaketa eta zuzentasun faltaren biktima izan ziran 1.240 pertsonak umiliatu egin ebazala pentsetan dogu.

Ez doguz ahaztuten anabasa horren arduraduna handiena Javier Cruz, Santurtziko alkatea, eta Begoñako Gure Ama egoitzako lehendakaria; eta Temiño jauna, Pertsonal eta kontratazino arloko arduraduna.

Gure herria gobernatzen daben *pentsalariei* gauza bat galdetzea baino ez jaku gelditzen: sortu daben gardentasun falta hori zelan konpondu behar daben. Zer egingo dabe?

'Emoitza' berbea ez dago txarto

Iñaki Martiartu • BAKIO

Okertzat hartu zenduen *Okerrak Zuzen-*

tzen sailan lehengo aldian berba horren erabilkerea, emoitza baino emaitza berbea ontzat hartuta. Egon be, zeuek oker zagozelakoa daukat eta uste dot oker esan zenduena arteztu beharko zeunkeela, agirian jakina, irakurleak jakin daien, emoitza berbea bizkaieraz ondo be ondo dagoana, Bizkaiko euskerearena dalako.

Bizkaiko euskerearena esan dot eta Orozkokoa da izan, hatan be. Halantxe dakar R.M. Azkuek orain dala 100 urte idatzitako *Diccionario Vasco-Español-Frances* (1902) hiztegiaren. Hara jo ezker, hurrengo honeek irakurriko doguz:

EMAI: 1. (B, arc), dadiva; cadeau. 2. (L), var. de eman en algunas relaciones; var. de eman dans quelques relations. 3. (B-i), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par lequel sortent les humeurs mauvaises du corps.

EMAITZ: 1. (BN, G, L, S), dadiva, regalo; cadeau récompense. 2. (BN, Sal.), abundante generosidad; largesse, grande generosite. 3. (BN, Sal.), censo, canon; redevance, dime.

EMOI: 1. (B), dadiva, regalo; present, cadeau. 2. (B), fuente por donde salen los malos humores del cuerpo; exutoire, endroit par ou sortent les humeurs mauvaises du corps. 3. (B-o), var. de emon en algun derivado; var. de emon dans quelque derive. Emoiten: dando; donnant. Emoiteko: para dar; pour donner.

EMOITZA: (B-o), dadiva; don.

EMOKARI: (B), dadiva; don.

Beste hiztegi batzuetan be antzerakoa dakar, halan bada:

Diccionario Retana de Autoridades del Euskera (1976) hiztegiaren, aurrean esandakoari hurrengook gehitu leitekioz:

EMAITZ: I. Fruto. II. Entrega, donacion. III. Dadiva, regalo. IV. (BN, Sal.) Abundante generosidad. V. (BN, Sal.) Censo, canon.

EMAITZE: Don, regalo (S).

EMOITZA: (B-o) Dadiva.

Aita Plazido Mujikak egindako *Diccionario Vasco-Castellano* (1981) hiztegiaren:

EMAITZA: 1. (c) dadiva, regalo, don, presente. 2. (c) donacion. 3. BN generosidad, largueza, liberalidad. 5. BN tributo, censo, impuesto, contribucion, canon, pension anual. 6. beneficio. 7. fruto, producto. 8. resultado (Aritm.), resultado de una operacion.

EMOITZA: 1. B dadiva, don, regalo, presente. 2. B donacion.

Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegia* (1987) dalakoan:

EMAITZA / EMAITZ (G, L, BN, S) / EMAITZE (S) / EMOITZA (V-oro): 1. don, regalo, dadiva. 2. fruto, resultado.

Alderdi batetik, hiztegi guztiok bat datoz emoitza berbea ontzat hartuten, euron egileak Bizkaiko eta jatortzat hartu dabe, ganera.

Bestetik, berbeta modernoan sarritan berba batzuk dauken esangureari beste bat edo batzuk gehituten jakoz. Esaterako, arazo berbeak, gaur egun, gizarte modernoan, geuretariko asko ta askorentzako *problema* esangurea dauka. Zaharrentzako, ostera, Bizkaian beintzat, *ataza*, *zeregin* esangurea eukiten izan dau eta ez besterik. Betiko esangura hori, gaur egun, baztertuta eta askorentzako guztiz ezjakinean lotu da. Halantxe hainbat eta hainbat berba, euskalki guztietakoak.

Zergaitik mugatu behar jako arlo sematikoa emoitza berbeari, emaitza-emaitz berbeari hori berori ez bajako egin? Baturako emaitza berbeari arlo semantikoa zabaldutea erabagi badabe, bada, bardin-bardin egin leiteke bizkaieraz geure berbak dirala eta. Halandaze, erderazko *resultado*, *resultat* adierazoteko, bizkaieraz, emoitza berbea erabili ezkeron, ez leuke hori inork txartzat hartu behar, bestetara baino.

asfaltoko kronikak

Gotzon Hermosilla

Ondo etorri, Manitoba

Zein da, zuen ustez, egunotan Bilbon dogun kultur ekitaldirik garrantzitsuena? Hiro Yamagatak Guggenheimen parau dauan ikuskizuna? Beno, *Star Wars*en efektu bereziak gustetan bajatzue, ez dago txarto. Bilboko Arte Ederretako Museoa zabaltzea? Bai, hori be garrantzitsua da, baina neu beste zeozer nabarmendu guran nabil. *Medea* opearearen emonaldia Euskalduna jauregian? Mariah Carey neskato ipurdifrontoiaren filmaren estreinaldia? Oker zagoze danok. Niretzat eta ni lako beste hainbat zororentzat, datorren asteke gertakizunik aitagarriena Dictators-ek Kafe Antzokian emon behar daben kontzertua da.

Bai, lagunok, datorren barikuan New York-eko taldea gure artean izango dogu ostera be, eta berbak labur suertatzen ja-

taz horrek sortzen deustan emozinoaren barri emoteko. Dictators barriro gurean! Eta ez pentsa erraza izan danik. Irailaren 11ko jazoeren ostean, Estatu Batuetako talde ugari uko egin deutso Europan jotzeari, Nashville Pussy eta New Bomb Turks taldeek berbarako. Baina Dick Manitoba eta bere mutilak ez dira erraz kikitzen, ez horixe.

Iazko udan New York-en emon neban denporea Manitobaren tabernari bisitea egiteko aprobetxau neban. *Manitobaes* Lower East Side izeneko auzunean dago, hau da, alproja eta jonkien auzunea izan-

dakoa, Giuliani alkateak inguruak egurrez eta poliziaz garbitzeari ekin eutson arte. Dorre Bikien kontuaren ostean filmetako heroi bilakatu jaku Giuliani jauna, baina orain arte munduko pertsonajerik gorrotatuen izan da legea eta ordena maite ez dituen New York-eko biztanleentzat. Garbiketarak gorabehera, oraindino be arriskutsu samarra da Lower East Side ospe txarreko auzunea. Nik ez neban uste Dictators-en abeslaria tabernan beharrean egongo zanik, baina, bai, hantxe topau neban Manitoba, barraren atzean, martiniak edaten zituena trabestiakaz berbetan, beti bezain do-

tore, beti bezain oilar. Horixe da-eta Dictators-en ezaugarri nagusia: kalean sortutako taldea da, galtzaileak, harroak, maitagarriak. Eta onak. Oso onak. Rockenrollak zirrarea sortzeko dauan gaitasunaren erakuslerik behinenak.

1997an, Kafe Antzokian jo eben aurreko aldian, elkarriketea egin neutson Ross the Boss gitarra-joleari *Entzun!* aldizkari-rako eta, CBGBko garaiak gogoan, ha rockenrollaren belaunaldirik onena izan zala esan eustan. Arrazoiak eukan. Ramones, Johnny Thunders, Richard Hell, Dead Boys... Izpiritu horren azken ordezkariak dira Dictators. Eta, ganera, bizirik dagoz. Aspaldiko partez, disko barria besapean dabela etorriko dira. Gura badozue, datorren barikuan lehenengo lerroan ikusiko dogu elkar.